

## V. ERANSKINA

### BENETAKO TITULARTASUNAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NAN: \_\_\_\_\_), \_\_\_\_\_  
erakundearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ: \_\_\_\_\_; zerga-egoitza:  
\_\_\_\_\_), SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik,  
\_\_\_\_\_ (deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan,

### ADIERAZTEN DU

**LEHENENGOA.**– Ezagutzen duela irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko. **Horren arabera, funtsen azken hartzailearen identifikazioari dagokion informazioa eman behar da: funtsen hartzailearen izen-abizenak eta benetako titularren jaioteguna**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan egiten den titular errearen definizioari jarraikiz.

**BIGARRENA.**– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, honako hauek direla benetako titullarrak (hau da, azken buruan jabetza edo bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo transakzio edo jardura<sup>1</sup> baten ardura duten pertsona fisikoak):

BENETAKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/ PASAPORT EA	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaiotze-data	Partaidetza (%)

<sup>1</sup> Pertsona juridikoen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuaren arabera, gutxienez honako hauek hartuko dira kontuan:

(i) <<Azken buruan pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak, entitate horretan akzioen, boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen ehuneko nahikoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez (eramailearentzako akzio-zorroak barne) edo beste bitarteko batzuen bidez, merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunaren edo jabetzaren gaineko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak izan ezik. Zuzeneko jabetzaren zantzia izango da pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza gehi akzio bat edo bezeroarengan % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea. Zeharkako jabetzaren zantzia izango da pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean (edo sozietate batzuen kontrolpean, baldin eta horiek pertsona fisiko beraren edo berberen kontrolpean badaude) dagoen % 25eko gehi akzio bateko partaidetza izatea kapital sozialean, edo % 25etik gorako jabetza-eskubide bat bezeroarengan. Estatu kideek ehuneko txikiagoa jabetzaren edo kontrolaren zantzu izan daitekeela erabakitzeke duten eskubideari kalterik egin gabe aplikatuko da aurreko hori. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola» badela zehaztu ahal izango da, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. paragrafotik 5. paragrafora bitartekoetan ezarritako irizpideen arabera. Izan daitezkeen bitarteko guztiak agortu ondoren, eta, betiere, susmo-arrazoirik ez badago, i) tartekiaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titullarrak edo goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duten pertsona fisikoak diren zalantzak badaude, behartutako erakundeek i) tartekiaren eta tarteki honen arabera benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte;

**HIRUGARRENA.**– Badakiela ezen, eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako erakunde betearazleari entregatu beharko diola benetako titularra(k) egiaztatzen d(it)uen notario-aktaren kopia, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

\_\_\_\_\_ (e)n, 20\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an

Sin.:

Kargua: \_\_\_\_\_